	PREBENTZIO OROKORREKO JARRAIBIDEA	Jarraibide zk. PI-ZAI-002
	SARRERA, ZIRKULAZIO ETA EGONALDIEI ETA ARRISKU ETA PREBENTZIO-NEURRI OROKORREI BURUZKO INFORMAZIOA ARRANTZA-LONJAREN IRISPIDE, BIDE ETA JABARI PUBLIKO KOMUNEAN	Ber. zk. 1
		Orria. 1 / 2

Jarraibide hau nahitaez bete beharrekoa da arrantza-lonjaren irispide, bide eta jabari publiko komunean, baina jabari publiko horren emakida edo baimena duten Erakundeek, halaber, beste jarraibide partikular batzuk ezar ditzakete enpresaburu Titular gisa edota Nagusi gisa, hala egokitzen denean. Arrantza-lonjan lan egiten duten Erakunde guztiek zainduko dute jarraibide hau bete dadila.


Gainera, jarraibide hau eguneraturik edukitzearren, Erakunde horiek Pasaiaiko Portuko Agintaritzari azalpenak emango dizkiote bertan burutzen dituzten jardueren arrisku berezien inguruan, arrantza-lonjaren irispide, bide eta jabari publiko komunean berekin batera aritu daitezkeen enpresetako langileei eragin diezaieketenean, eta bereziki, jarduerak batera egiteagatik larritu edo aldatu daitezkeen jardueren inguruan.

1. SARRERA, ZIRKULAZIO ETA EGONALDIRAKO ARAUAK

- 1.1. Arrantza-lonjara sartzeko beharrezkoa da alde zuzeneko baimena edukitzea, ostiraleko (edo jai-bezperako) 16:00etatik igandeko (edo jai-eguneko) 18:00etara izan ezik, tarte horretan libreka baita sarrera, nahiz eta Portuko Agintaritzaren zaintzapean izango den.
- 1.2. Pasaiaiko Portuko Agintaritzak arrantza-lonjara sartzeko baimena ematen duten txartelak banatuko ditu.
- 1.3. Sarrera-txartelak gabe arrantza-lonjara sartzen diren pertsonak edo horretarako ezarrita ez dauden sarbideetatik sartzen direnak (San Pedroko kaiko sarbideetatik), identifikatu egin beharko dute Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Portuko Poliziaren langileak aurkitzen diren sarrera-gunean eta justifikatu egin beharko dute beren presentzia.
- 1.4. Pasaiaiko Portuko Agintaritzak Portuko Polizia Zerbitzu bat du eguneko 24 orduetan, Eraikin Transatlantikoaren beheko solairuan kokatua. (Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren telefonogunearen zenbakia: **943351844 / 943350022**).
- 1.5. Arrantza-lonjara sartzen diren pertsonak beren jardueraren arabera beharrezkoa duten eta sartzeko baimena ematen zaien tokietara zuzendu beharko dute eta haietan bakarrik egon beharko dute.
- 1.6. Debehatuta dago etengailuetan edo instalazioetako beste edozein ekipotan manipulazioak egitea, baimen berezirik izan ezean (*zuzeneko edo zeharkako kontaktu elektrikoetarako arriskua dago*).
- 1.7. Ez erabili makinari edo ekipori, alde zuzeneko baimenik gabe.
- 1.8. Debehatuta dago lonjaren barrualdean jatea, edatea edo erretzea.
- 1.9. Arreta berezia eskaini irregulartasunei eta egon daitezkeen objektuei (egurrezko ziriak, zumitz metalikoak, arrain-kondarrak, olio-orbanak, hezetasuna, gainbeherak...) bideen eta jabari publiko komunaren zoruari, bai ibilgailuek eta bai pertsonak ere. Era berean, horiek egoera onean eta garbi egon daitezela bermatu behar da (*personak maila berean erortzeko arriskua, gauzak zapaltzeko arriskua eta objektu edo erremintengatik kolpeak/ebakiak izateko arriskua*). Segurtasuneko oinetakoak erabiltzea gomendatzen da arrantza-lonjatik zirkulatzean.
- 1.10. Bideen eta jabari publiko komunaren inguruetatik doazen oinezkoek arrera berezia jarri behar dute ibilgailu mota desberdinak igarotzen direlako (kamioiak eta automobilak lonjaren kanpoaldean, orga jasotzaileak, eskuko transpaletak...), arrantza-lonjan lanean aritzen direnak, eta hori dela eta, *oinezkoak harrapatzeko arriskua, objektuek edo objektuen artean harrapatuta geratzeko arriskua eta makineria iraultzeagatik harrapatuta geratzeko arriskua* dago). Lonjan egiten den egonaldian ikusgarritasun handiko arropa erabiltzea gomendatzen da.
- 1.11. Materialak edo produktuak pilatuta dauden moduari arreta berezia eskaini (*oinarriak huts egiteagatik objektuak erortzeko edo manipulazioan gainbehera erortzeko arriskua*). Barnealdean biltegitutako pilaketak inklinatuak edo erortzeko arriskuarekin ez daudela egiaztatuko da.
- 1.12. Arrantza-lonjan jarritako seinale mota desberdinak errespetatu eta horiek egoera ezin hobean mantendu.
- 1.13. Arrantza-lonjaren irispideak, bideak eta jabari publiko komuna garbi eta ordenatuta eduki. Igarotzeko guneak, irteerak eta zirkulazio-bideak, eta bereziki larrialdi-kasuetan kalera irteetakoak oztoporik gabe mantendu beharko dira.
- 1.14. Erremintek, lan-baliabideek, materialek... ez dituzte inoiz oztopatuko koadro elektrikoak edo suteen aurkako babes-elementuak.
- 1.15. Kaiaren eremuan, kontuz ibili itsaslabarrarekin (*personak maila desberdineren / itsasora erortzeko arriskua*). Ez hurbildu itsaslabarrera, eta ez utzi inguru horretan biltegitutako materialik.
- 1.16. Pasaiaiko Portuko ur-eremuaren kudeaketan (itsasontziak mugitzeko, ainguratzeko eta atrakatzeko 1 eta 2 eremuak) eskumena duten Herri Administrazioetako Organo nagusiak Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren eta Pasaiaiko Itsas Kapitaintza dira, eta beraz, eremu horietan haiek ezarritako aginduak bete beharko dira.

2. IBILGAILUAK (KAMIOIAK, MAKINERIA,...)

- 2.1. Bai arrantza-lonjaren barrualdean eta bai kanpoaldean ere ibilgailu kopuru handi bat ibiltzen da, eta horien artean ditugu, besteak beste, kamioiak, furgonetak eta automobilak, eskorga jasotzaile automotorak eta eskuko transpaletak.
- 2.2. Langile baimendu, kualifikatu eta beren jardueren erantzule direnak bakarrik erabili behar dituzte ibilgailuak eta makineria, eta beren jarduerak arrantza-lonjan burutzen duten enpresetan ezarritako arau bereziak errespetatuko dituzte.
- 2.3. Arrantza-lonjaren kanpoaldean baimendutako gehieneko abiadura 15 km/h da. Arrantza-lonjaren barrualdean baimendutako gehieneko abiadura 10 km/h da.
- 2.4. Merkantziak garraiatzen dituzten ibilgailuek karga ongi atonduta ibili beharko dute bideetatik, karga hori erori dadila ekiditearren.
- 2.5. Debehatuta dago arrantza-lonjan eta bere inguruetan aparkatzea, horretarako xedatutako parkingetan eta horretarako ezarritako ordutegietan izan ezik.
- 2.6. Barrutian dauden seinaleak errespetatu, bereziki arriskuaz ohartarazteko seinaleak, ibilgailuen zirkulaziorakoak eta ebakuazio-bideei dagozkienak.
- 2.7. Oinezkoak, ahal den neurrian, lonjaren barrualdean horretarako ezarritako pasabideetatik ibiliko dira, karga eta deskargako eragiketetan eskorga jasotzaileei arreta berezia eskainiz, eta segurtasun-tarte bat utziko dute, jasotako kargaren altuera baino handiagoa.

 <p>Pasaiako Portua Puerto de Pasaiá</p> <p>Pasaiako Portuko Agintaritza Autoridad Portuaria de Pasaiá</p>	PREBENTZIO OROKORREKO JARRAIBIDEA	Jarraibide zk. PI-ZAI-002
	SARRERA, ZIRKULAZIO ETA EGONALDIEI ETA ARRISKU ETA PREBENTZIO-NEURRI OROKORREI BURUZKO INFORMAZIOA ARRANTZA-LONJAREN IRISPIDE, BIDE ETA JABARI PUBLIKO KOMUNEAN	Ber. zk. 1
		Orria. 2 / 2

3. LARRIALDIA

- 3.1. Pertsoneri lesioa eragin dien larrialdiren bat (istripua) gertatu bada: Lasai egon eta istripua izan duena lasaitzen ahalegindu. Eragindako langilearen arduradun hurbilenari jakinarazi, eta hark egoki den laguntza antolatuko du.
- 3.2. Anbulantzien, suhiltzaileen eta Ertzaintzaren laguntza eskatzeko harremanetarako telefonoa **112** zenbakia da.
- 3.3. Erakunde bakoitzak antolatuta duen prebentzio-ereduak finkatuta eduki behar du nola eskaini behar den lehen sorospena, edozein eratako larrialditan. Nolanahi ere, erabiltzaileei jakinarazten zaie Tratatuko Eraikinaren beheko solairuetan Pasaiako Portuko Osasun Zentroa kokatua dagoela, eta asteleheneetik ostiralera irekita dagoela 7:00etatik 21:00etara (Telefonoa: 943350147 edo 606790997), gai honetan Erakunde bakoitzari dagozkion erantzukizunen kaltetan izan gabe.
- 3.4. Edozein arazo, larrialdi edo anomalia Pasaiako Portuko Agintaritzaren Portuko Poliziari jakinarazi beharko zaio lehenbailehen, hala egokitzen denean dagozkion jarduerak abian jarri ahal izan daitezten. (Telefonoa: **943353364**).
- 3.5. Arrantza-lonjan larrialdi-kasuren bat gertatzen baldin bada, eta Erakunde bakoitzeko arduradun egokiek horrela adierazten badute, alarma-deiarekin edo horrelakorik gabe, langile guztiak eten egin beharko dituzte lanak, segurtasunezko baldintzetan utziz. Erabiltzen ari diren ekipoa deskonektatu egingo dituzte eta eremu horretatik irtengo dira leku seguru batera joateko, eragindako eremu horretatik kanpo (Erakunde desberdinen larrialdi-planetak topaguneetara). Hori guztia, behar den lasaitasunarekin.
- 3.6. Arrantza-lonjak suteak itzaltzeko sistemak ditu: ur-hartuneak arrantza-lonjaren eremu desberdinetan, sute-aho ekipatuak eta su-itzalgailuak. Ekipo horietakoren bat erabiliz gero, Pasaiako Portuko Agintaritzaren Portuko Poliziari horren berri eman.

4. INGURUMENA

- 4.1. Arrantza-lonjan lan egiten duten Erakunde guztiak ingurumena babesten dela bermatu beharko dute, eta horretarako, ekidin egin beharko dute hondakinak bertan uztea, konponketak egin bitartean gasak atmosferara igortzea, likido kutsagarriak isurtzea, lurzorua kutsatzea eta abar.
- 4.2. Edozein eratako hondakinak (arriskutsuak, geldoak, hiri-hondakin solidoak edo parekagarriak) sortzen dituzten Erakunde guztiak horiek jaso eta erretiratu egin beharko dituzte.
- 4.3. Ez bota ezer kutzatiletara, alde aurreko baimenik gabe.
- 4.4. Energia-baliabideak ahalik eta ongien erabili, ahal den guztietan (adib.: ez utzi ekiporik eta instalaziorik martxan, beharrezkoa ez denean).
- 4.5. Isurketak, ihesak, ingurumen-istripuak egonez gero, arduradun hurbilenari jakinarazi, eta hark egoki den jarduera antolatuko du. Nolanahi ere, Pasaiako Portuko Agintaritzaren Portuko Poliziari jakinarazi.
- 4.6. Ez dago baimenduta arrantza-lonjan kokatutako edukiontzietara inolako isurketarik egitea, berariaz baimendutako kasuetan izan ezik.

5. AZKEN OHARRAK

- 5.1. Laneko arriskuen prebentzioaren alorrean eskumena duten Herri Administrazioetako Organoak hauek dira: *Lan Ikuskaritza eta Gizarte Segurantz*a, berari baitagokio lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia bete dadila zaintzeko eta kontrolatzeko lanaren eskumena, eta halaber, prebentzioaren alorrean lan-baldintzetan eragiten duten arau juridiko-teknikoak, eta *Osalan*.
- 5.2. Emakiden eta baimenen titularrei dagokie lan-zentroko titular gisa enpresa-jarduerak koordinatzeko obligazioak betetzea.
- 5.3. Emakida edo baimenen erregimenean eman ez diren eremuetan, merkantziak kargatzeko, estibatze, desestibatze, deskargatzeko edo ontziz aldatzeko edo bidaiariak ontziratze edo lehorretatzeko eragiketak egiten badira, edo merkantziak jaso, biltegiratu, bildu eta horizontalki garraiatzeko eragiketak egiten badira, koordinazio-obligazioak betetzen direla zaintzaren erantzukizuna dagokion *zerbitzua eskaintzen duen enpresarena* izango da.
- 5.4. Eskaintako zerbitzuen ustiapen-baldintzen orriak oinarritat harturik (baldintza-orri arautzaileak edo baldintza orokorrenak, preskripzio edo baldintza berezien orriak eta horiei dagozkien administrazio-titulu gaitzaileak), lan-jardueraren zuzendaritza, antolakuntza eta kontrola portu-eremuan *zerbitzuak eskaintzen dituen enpresaren* eskumena da.
- 5.5. Zerbitzuko portu-eremuan lan egiten duten Erakunde guztiak laneko arriskuen prebentziorako legeria bete beharko dute, eta bereziki, hauxe egin beharko dute:
 - Ordezkaritza Baimendu bat izendatu behar dute jarraibide hau zaintzeko eta betearazteko, berarekin batera jardun dezaketen gainerako Erakundeetako Ordezkariekin koordinatuz eta elkarlanean arituz.
 - bere langileei, hala egokituz gero, zerbitzuak azpikontratatzeko kontratuan eskatutako Babes Kolektibo edo Indibidualerako Ekipoak (homologatuak) eskaini behar dizkie.
 - laneko ekipoei eta ibilgailuei dagozkien mantentze-lanak egin behar dizkie, ekoizlearen jarraibideekin edo aplikagarri zaion araudi bereziarekin bat etorritik.
 - Bere langileei beharrezko hezkuntza edo trebakuntza eskaini behar die lana hasi aurretik, edo izendatutako lan bat aldatzen duten zirkunstantziak gertatzen direnean (ahaztu gabe fase eta eragiketa bakoitza egiteko modu zuzen eta seguru bat dagoela).
 - Pasaiako Portuko Agintaritzak bere esku jarri dituen baliabideak erabiltzen baldin baditu (korrante elektrikoaren hartuneak, ur-hartuneak eta abar), Pasaiako Portuko Agintaritzari jakinarazi behar dizkio horiek erabiltzearen ondorioz eragin ditzakeen kalteak, segurtasun-egoerarik onenean mantentzeari begira.
- 5.6. Pasaiako Portuko indarreko Zerbitzu, Polizia eta Erregimen Araudiak xedatutakoa beteko da, eta edonola ere, Pasaiako Portuko Agintaritzaren Portuko Poliziaren langileek jarraibide hau betetzearekin loturik ematen dituzten oharrak errespetatuko dira.